


Diskoak

IKER BARANDIARAN



Gabeko kalapitxiak.
Piztiak.
Autoekoizpena.
Iraupena: 59'44".
10 euro.

Argitik hurbil, baina itzalekin jolastuz

PIZTIAK Ondarroako talde beteteranoa da, baina antza denbora luzez itsasoari begira egoten dena. Isilune baten ostean, beraien herriko pasarte eta bizipenak batzen dituen disko pertsonala kaleratu dute, iraganeko rock gitarrerotik apur bat aldentzen dena. Poperoa da, pausatuagoa ere bai askotan, baina gitarrak zelatan daude eta batzutan lagun dituzten Ama Say eta 1990eko hamarkadako izpiritua gogora ekartzen dituzte. Baita Violent Femmes eta Vel-

vet Underground bera ere. Hala ere, barrenak askatasunez hustu dituzte gugandik urrundu eta argirantz axolagabeki hurbilduz. Kanta luzeak dira gehienak, garapena eta esperimentazioa gus-tukoak dituztenak; eta ondarrutarrez gozatutako istorioak oso hurbilekoak dira. Ez galdu aukera zure herrira eramateko, itsas-korronteak direla-eta, kontzertuak emateko puntuan daude-eta.

www.myspace.com/piztiak

Txomin Uribe - Piztiak

«Disko honetan ez genuen irizpiderik jarri; bakoitzak nahi zuena egin zuen»

Orain dela gutxi musikari bizkaitar batek aitortu zidan oso zaila egiten zitzaioela euskalkian idatzi eta abes-tea. Zuentzat hala da naturalena edo behartu egiten duzue zuen burua?

Berezko kontua da. Batzuetan euskara batuan idazten ditugu, baina disko honetan batez ere ondarrutarra asko agertzen da, abestiak Ondarroako gauzez, irudiez eta istorioez direlako; hala atera dira.

Disko honek askatasun sentsazio handia eragin dit. Hala izan da? "Ereizten" zaizuen egin duzue?

Esan diguten gauza politenetako bat da, eta baita disko honen gakoa ere. Berau prestatzen hastean ez genuen inolako irizpiderik jarri; bakoitzak nahi zuena egin zuen bel-dur guztiak alde batera utzita. Eta zerbaít bada, hori da gaueko kalapi-



txien askatasuna, nahiz eta jakin bonbillan erreko direla.

Pettik oso parte ederrak kantatu ditu. Argi zenuten bera izan behar zela?

Hasieratik. Gure ahotsen aurrean beste ahots grabe eta rockero bat sartu beharra zegoela konturatu ginen eta zein hobeto Petti mundu mundialeko abeslari onena baino.

Zer puntutan dago orain Piztiak?

Oso gustura gaude egindako lanarekin; seguruenik orain arte egin

dugun disko onena da. Orain Josu Aranbarri baxu jotzaileak egindako pintura, argazki eta bideo erakusketarekin gabilta. Aurrerago, *Lo* abestiaren bideoa eta *Gabeko kalapitxiak*en film laburra egin behar du Josu Eizagirrek.

Zerk kentzen dizue *Loa*?

Gehienbat ez dagoela musika taldeen jarraitzaile ezta entzule askorik; interesa galdu dela kontzertuetara joateko, diskoak erosteko... Kultura hori galtzen ari da eta guretzat guztia izan da, bizitzeko modu bat.

Natura ia etengabe agertzen da zuen hitzetan, izenburuan... Ez al genituen ba rocka eta rockeroak urbanitekin lotzen?

Gu ondarrutarra izanik beste era batera ezagutu dugu rocka. Ondarroako gau zoro batera etorri baino ez duzu... ■